



Josune Gereka

Ikastolen elkarteko informatikako arduraduna

«Haur askok irakurtzen eta idazten ez dakienez, entzunezkoak erabiltzen dira»

Ttando eta *Txirritx* CD-ROMak kaleratu ostean, *Xango* da Ikastolen Elkartek kaleratu duen azkena. 5 urteko haurrentzako da, eta astialdirako eta heziketarako baliagarria izatea du xede.

Zer da *Xango*?

Xango Ikastolen Elkartek duen Urtxintxa ikas materialgintza proiektuan lagungarri den CD-ROMa da. Proiektuarekin, 2 urtetik 6 urte bitarteko haurrentzako ikas materiala garatu da. Hala, proiektuarekin lotuta dauden hiru CD-ROM kaleratu ditugu orain arte: *Ttando*, *Txirritx* eta hau, *Xango*. Azken hau, 5 urteko haurrentzako CD-ROMa da.

Nola dago osatua *Xango* CD-ROMa?

Haur txikientzako CD-ROMak izanik, askok ez dakite ongi ira-

kurtzen eta idazten, eta guztia entzunezkoen bidez lantzen da. Beraz, *Ttando* amona mantangorriak, *Txirritx* kilkerak eta *Xango* matxinsaltoak adierazten diete zer egin uneoro.

Zer lantzen da, zehazki?

Hiru CDak egituraz antzekoak dira, eta, haurraren adinaren arabera, gaiak aldatzen dira. CD bakoitzean, 12 gai lantzen ditugu. Gai bakoitzak pantaila nagusi bat dauka; horixe izango da ondoren egingo diren jardueretarako sarrera. Denek entzunezkoekin landutako ipuin bat dute oinarri, abesti bat, eta, ondoren, jarduera mordo bat. *Xango*-n jarduera hauek daude: simetria jokoak; memoria garatzeko karta jokoa; matematika lantzeko labirintoa; margo, olerki eta igarkizunen txokoa; puzzleak; zenbaki segidak; idazketa txokoa; eta idazketa, irakurketa eta letrak lantzekoak.

Zein gai jorratzen dira?

Ikaslearen interesgunearekin

eta bere garapenarekin loturiko gaiak jorratzen dira: Gabon garaian, Olentzero; ikasturte hasieran, ikastola, natura, parkea, gorputza, inauteriak...

Zein da helburua?

Jolasten ari diren bitartean ikastea da helburu nagusina. CD-ROM bakoitza eduki aldetik oso oparoa da, guztira, 12 gai lantzen baitira. Pixkanaka, zailtasun maila ere handitzen doa, hasierako gaitik amaierara. Urtxintxa proiektua metodo eraikitzaile batean oinarritzen da. Hala, haurraren interesguneetik abiatzen gara gauzak irakasteko.


Erraza al da erabiltzeko?

Erabilpen alde-

tik ez dago arazorik. 3 urteko haurrekin hasieran bazen hala-ko mesfidantza, baina ederki moldatzen dira. Entzunezkoekin azaltzen da dena, eta haurrak berehala ikasten du. Ikono bidez ere berehala jakiten dute zer egin. Pertsonaiek ere animoak eta argibideak ematen dizkiete. Eskolan bertan edo etxean gurasoekin erabil daiteke.

Zer nolako harrera izan du azken CD-ROMak?

Haur txikientzako ez da euskaraz horrelako materialik; beraz, oso harrera ona izan du. Eduki asko ditu eta ongi landuta dago. Gainera, ez dira CD-ROM solteak, ikas material batekin loturikoak baizik. Horrek ere nolabaiteko arrakasta ematen du.



Izenburua: Xango.

Nori zuzendua: 5-6 urte haurrentzat.

Edukia: 12 gai lantzen dira; bakoitzak bere ipuina, abestia eta jarduerak ditu.

Argitaratzailea: Ikastolen Elkartea.

Prezioa: 30 euro.

BIDEO JOKOA

'Baby Felix. Tennis'

Felix katuak eta bere lagunek tenis txapelketa antolatu dute. Irabazleak *Felix* katuaren aurka jokatu beharko du. Partidak aurrera doazen heinean, irabaztea are zailagoa da. Askotariko kantzak eta aurkariak dituzu aukeran. Nor izango da garaile?



Play Station 1

Argitaletxea ■ Virgin

LIBURUA

'Franti'



Franti gizontxo txiki eta eskuzabala zen. Beti umore oneko zegoen, gainera. Franti oso langilea zen, eta lanera oso gustura joaten zen. Hain gustuko zuen bere lana, ezen adinean sartuta egon arren, ez zuen erretiratu nahi. Pertsona xelebrea zen.

Karlos Linazasoro

Argitaletxea ■ Giltza

LIBURUA

'Heroia izan nahi zuen mutikoa'



Lusek, handitzean, Justiziagile Hegalaria bezalakoa izan nahi du. Horregatik, jantzi berezia eskatu du, kapa gorria eta turboerreaktoredu botak dituen. Pertsona berezi batek lagunduko dio Luisi bere nahia betetzen.

Sylvain Trudel

Argitaletxea ■ Ibaizabal